

OINARRIZKO HEZKUNTZARAKO TUTORETZA PLANA EGITEKO ORIENTABIDEAK

LEHEN HEZKUNTZA 1. ZIKLOA

2007 - 08 IKASTURTEA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**OINARRIZKO HEZKUNTZARAKO TUTORETZA-PLANA EGITEKO
ORIENTABIDEAK: LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOA.
2007-08 ikasturtea**

AURKIBIDEA:

1. ZATIA: TUTORETZA-PLANAREN ESPARRU OROKORRA

- 1.- Sarrera
- 2.- Tutoretza-planaren atalak
- 3.- Tutoretzatik garatu beharreko gaitasunak
- 4.- Tutorearen esku-hartze eremuak
- 5.- Tutorearen zereginak
- 6.- Tutoretza-planaren jarraipena eta ebaluazioa

**2. ZATIA: LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOAN TUTORETZA-PLANAK DUEN
GARAPENA**

- 1.- Orientazio Arloaren gaitasunak, Lehen Hezkuntzan
- 2.- Orientazio Arloaren eduki-multzoak
- 3.- Multzo bakoitzari lotutako gaiak eta materialen erreferentzia
- 4.- Gaitasunak eta ebaluazio-irizpideak

1. ZATIA: TUTORETZA-PLANAREN ESPARRU OROKORRA

1.- SARRERA

Hezkuntza-orientabidea etengabeko laguntza-prozesu sistematikoa da, eta hezkuntza-jardueran sartuta dago. Ikasleei bere proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen trebatzeko gaitasunak eskuratzen laguntzea da orientabidearen helburua.

Orientazioko edukiek eskolako curriculum guztian dute eragina, eta zeharka garatu behar dira, alor guztietan. Hala ere, ikasketa horien zati bat esplizituki landu beharko da tutoretzan, hazkuntza pertsonalerako garrantzia duelako, ondorengo ikasketetan eragina duelako, eta bizitzako hainbat egoeratan erabil daitekeelako.

Ikastetxearen heziketa-proiektuaren barruan, tutoretza-plana da ikasleen eskolatzeko aldi osoan orientazio eta jarraipen ekintza guztiak antolatzen egitura. Oinarrizko gaitasunak lortzea da orientazio eta jarraipen ekintza horien helburua.

Tutoretza-lanaren helburua da ikasleak bere burua ezagut dezala eta onar dezala, sozializazio-prozesua hobe dezala, erabakitzen eta ikaskuntza-arazoak konpontzen ikas dezala, eta bere proiektu pertsonal eta profesionalaren protagonista senti dadila.

Tutore-taldeari dagokio tutoretza-plana egitea, orientatzaileak, aholkulariak eta/edo etaparen koordinatzaileak aholkatuta.

Horrez gain, tutoreari dagokio tutoretza-plana garatzea, irakasle-taldearekin elkarlanean eta talde-gelan eragina duten beste eragile batzuekin koordinatuta. Halaber, orientatzailearen eta/edo aholkulariaren laguntza izango du, ikasleen aniztasunari erantzuten laguntzeko eta erantzungo diola bermatzeko, bai eta tutoretza-lana berritzeko eta etengabe hobetzeko ere.

Tutoretza-planak taldean tutoretza-orduan garatu beharreko curriculumeko orientazio-edukiak antolatzen ditu. Horrez gain, tutorearen esku-hartzea sistematizatzen du, ikasleen banakako eta taldeko jarraipeneko hainbat eremutan, familiekin izan beharreko harremanetan, eta irakasleekin eta kanpoko beste eragile batzuekin dagoen koordinazioan.

Hortaz, tutoretzan ikasketa-prozesuak daude, eta, hori dela-eta, bere edukiak ditu. Eduki horiek gaikako lau multzotan jaso daitezke, eta etapan zehar garatuko dira. Gaikako lau multzo horiek hauek dira: garapen pertsonala, besteekiko harremanak, lanbide-orientazioa eta ikasketa-prozesuak. Laurek hezkuntza-orientazio lotura zuzenagoa duten oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzen dute. Multzo bakoitzeko gaiak edo edukia aldatu egingo dira etapan zehar.

Bizitzan beharrezkoak diren gaitasun horiek eskuratzen laguntzeko ardura irakasle-talde osoarena da, baina, batez ere, tutorearena. Beraz, ikasketa-prozesuan eta bizitzaren garapenaren prozesuan ikasleari laguntzea da tutorearen zeregin nagusia. Oinarrizko gaitasun horiek lortzea da hezkuntza-helburua, eta helburu hori da prozesuaren gida.

Alor tradizionaletan bezala, tutoretzan eta orientabidean ere ebaluazio-irizpideak identifikatu dira. Irizpide horiek gaitasunak eskuratzen doazela egiaztatzeko balioko diete ikasleei eta tutoreari.

2.- TUTORETZA-PLANAREN ATALAK

Ikastetxeko tutoretza-planak atal hauek izango ditu, gutxienez:

- Ikasleen beharrak kontuan hartuta, tutoretzatik lortu nahi diren helburuak gaitasunak, eta edukiak.
- Eremu bakoitzean tutoreari dagozkion ekintzak: ikasleei, irakasle-taldeari, familiei eta beste hainbati zuzenduak.
- Ekintza horien plangintza, ikasturtean zehar.
- Plana bera ebaluatzeko irizpideak.

3.- TUTORETZATIK GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

Europako Parlamentuak funtsezko zenbait gaitasun ezarri zituen **2005ean**, erreferentzia-esparru gisa. **Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum (Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen den curriculum)** ezartzen duen Dekretuan honela zehaztuta daude gaitasun horiek:

- a) Gaitasuna kultura zientifikoan, teknologikoan eta osasun-kulturan
- b) Ikasten ikasteko gaitasuna
- c) Matematika-gaitasuna
- d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- e) Gaitasun digitala eta informazioaren trataerarakoa
- f) Gizarte- eta hiritar-gaitasuna
- g) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Gaitasun horien eraikuntza diziplina arteko eraikuntzat hartu behar da, eraikuntza globalizatutzat. Aurretik esan dugun bezala, tutoretzak berariaz landuko ditu gaitasun horietako batzuk.

Hauek nabarmentzen ditugu:

- **Ikasten ikasteko gaitasuna:** ikasten hasteko eta gero eta eraginkorrago eta autonomoago ikasten jarraitzeko trebetasuna da, bakoitzaren helburuak eta beharrak kontuan hartuta. Norberak dakienaz eta ikasi behar duenaz jabetzea esan nahi du, ikasteko erak eta erabiltzen dituen baliabide eta estrategiak zein diren ohartzea. Bakoitzak bere ikasketa antolatu eta denbora eta informazioa kudeatu behar du. Ikasten ikasteko, norbere esperientziak aprobetxatzen jakin behar da funtsean, eta jarrera kritikoa hartu behar da, arazoak hautemateko eta konpontzeko moduaren arabera. Bakoitzak bere portaera aztertzeko, arazoen iturriak identifikatzeko eta behaketak aktiboki aprobetxatzen jakiteko gai izan behar du.

- **Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna** sormenarekin, berrikuntzarekin, arriskuak hartzearekin eta proiektuen plangintza egiteko eta kudeatzeko trebetasunarekin lotuta dago. Ekintzaile izaten ikasteko gaitasunak irudikatzeko, gauzei ekiteko eta banakako edo taldeko ekintzak edo proiektuak sormenez, konfiantzaz eta arduraz garatzeko eta ebaluatzeko gai izatea eskatzen du, jarrera kritikoz, alde batetik norbere buruarekin, hobetzen joateko, eta testuinguruarekin, testuingurua ere hobetzeko. Egoerak aztertzeke, aukerak baloratzeko eta egokiena aukeratzeko ahalmena eskatzen du, egindako aukerarekin lan egiteko eta jarritako helburua lortzeko.
- Pertsona eta kultura arteko gaitasunek eta gizarte- eta hiritar-gaitasunek mota guztietako portaerak dituzte barruan. Gizarte-bizitzan eta bizitza profesionalean eraginkortasunez eta konstruktiboki parte hartzeko prestatzen dituzte ikasleak, batez ere, gero eta aniztasun handiagoa duten gizarteetan. Gatazkak gainditzeko eta/edo egoera arazotsuei aurre egiteko ere balio dute. **Gizarte- eta hiritar-gaitasunaren** garapenaren gakoetako bat, elkarrekin bizitzen ikasteko erreferentzia-ardatzari lotuta dago, eta interes orokorreko egoerak sortzea da gako hori. Lankidetzak, gizarte-gaiei edo gai akademikoei buruzko eztabaida edo kritika eta bizikidetzak-arauak eskatzen dituzte egoera horiek. Gelako kide guztiak aktiboki integratzea, eskolan dauden desberdintasunak onartzea eta taldean ikasle berriak sartzea gaitasun hori garatzen lagunduko duten gertaerak dira.

Tutoretzak berriaz lan egiten du gaitasun horiek garatzeko, eta, horrez gain, alor guztietako hezkuntza-gaitasun komunak koordinatzeko, dinamizatzeko eta sinergiak sortzeko ardura du, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin elkarlanean arituta.

4.- TUTOREAREN ESKU-HARTZE EREMUAK, OINARRIZKO HEZKUNTZAN

Tutoretza-planaren barruan jasota daude tutoreak ikasketa- eta hazkunde-prozesuan eta heldutasun pertsonaleko prozesuan ikasleei jarraipena egiteko eta laguntzeko egiten dituen zereginak.

Tutorearen zeregin horiek guztiak ondo zehaztutako **hiru jarduera-eremu hauetan garatzen dira:**

1. eremua: Zuzenean ikasleekin garatu beharreko ekintzak, bai taldean, bai banaka ere.

Tutoreak ikasleen laguntzarekin eta jarraipenarekin lotura zuzena duen ekintza garatzen du, bai banaka, bai taldean.

Tutorea da ikasle bakoitzaren jarraipen osoaren eta laguntzaren arduraduna, ikasle bakoitzak bere proiektu pertsonala eraiki dezan.

Eremu horren barruan sartzen dira taldean garatutako ekintzak —esate baterako, taldeko tutoretza orduetakoak eta ebaluazio-batzarrak— eta banaka garatutakoak —ikasle bakoitzarekin egindako elkarrizketak, gatazketan bitartekotza egitea, laguntza bilatzen laguntzea informazioa eskuratzeko eta erabakiak hartzeko...—.

2. eremua: Irakasleekin banaka eta gelako irakasle-taldearen parte gisa garatu beharreko ekintzak.

Tutorea da **irakasle-taldearen koordinatzailea**; hau da, ikasle-talde beraren hezkuntza-jardunean eragina duten irakasle guztien ekintzen koordinazioaren arduraduna da.

Eremu horren barruan daude taldeko esku-hartzeak —esaterako, irakasle-taldeen bileren koordinazioa, ebaluazio-saioen koordinazioa... — eta banakako ekintzak irakasle-taldeko irakasle bakoitzarekin —adibidez, bere taldeko ikasleen banakako edo taldeko egoerei buruzko elkarrizketak irakasle bakoitzarekin...—.

3. eremua: Ikasleen familiekin eta/edo legezko arduradunekin eta beste gizarte-eragile batzuekin garatutako ekintzak.

Gure ustez, funtsezko eremua da, ikasleei laguntza eta jarraipen egokia eman nahi bazaie.

Ezinbestekoa da tutoreak hezkuntza-arloko esku-hartzearen koordinazioa egin dezala, ikasleen ikasketa- eta orientazio-prozesuan esplizituki esku hartzen duten familiekin eta gizarte-zerbitzuekin.

Horrez gain, tutoreak taldeko ekintzak garatuko ditu familiekin eta/edo gizarte-eragileekin —besteak beste, bilerak—, ikasturtearen hasieran, etaparen amaieran eta egoerak hala eskatzen duen guztietan; eta taldeko ikasleak bizi diren guneeetako gizarte-zerbitzuetako, hezkuntza-zerbitzuetako, aisiako, absentismoaren jarraipeneko... erakunde eta elkarteekin koordinazioak. Halaber, banakako koordinazio eta jarraipen sistematikoa egingo du, familiekin, gizarte-zerbitzuekin... elkarrizketak eta bilerak eginez, ikasleekin esku hartzean batasuna egongo dela ziurtatzeko.

5. TUTOREAREN ZEREGINAK

Zeregintzat hartzen da zenbait lanekin lotutako eginbeharra. Atal honetan, tutoretza-lanarekin lotutako hezkuntza-eginkizunak aipatuko ditugu; hau da, hezitzailearen eginkizunak.

Jarduerak aipatzean, funtzio jakin bat betetzen laguntzen duten ekintza zehatzagoak adierazi nahi ditugu.

Tutorearen zeregin guztiak bakar batean laburbildu ditzakegu: ikasle bakoitzaren eta talde osoaren ikasketa- eta heldutasun-prozesuari jarraipena eta laguntza ematea. Izan ere, zuzenean ikasleekin egiten dituen ekintzak eta irakasleekin, familiekin eta kanpoko zerbitzuekin egiten dituenak funtsezko zeregin hori lortzeko egiten ditu.

Eremu bakoitzean tutoreek beteko dituzten zereginak gehiago zehazteko, tutoretza-planaren garapenean tutorearen eginbeharra osatzen duten zereginak deskribatuko ditugu jarraian:

1.- Ikasleei lotuta:

- Ikastetxean eta lagun-taldean ondo integratzen laguntzea, eta ikastetxeko jardueretan parte har dezatela bultzatzea.
- Unerik larrienetan ikasleei aholkuak ematea: ikastetxe berrian sartzean, hezkuntza-ziklo edo –etapa aldatzean, hautazko ikasgaiak aukeratzean, lan-mundura igarotzean...
- Ikasketei begira eta lanbide arloan informazioa eskuratzea erraztu eta erabakiak hartzeko ikaskuntza egoerak sortaraztea ikasleen autoorientazioa bultzatuz.
- Ikasleen ikasketa-prozesuen jarraipen orokorra egitea, hezkuntza-erantzun eta/edo laguntza egokiak emateko.
- Ikasleen eskaerak, kezak, kexak... bideratzea, eta, taldeko ordezkariarekin eta ordezkariordearekin lankidetzan, gainerako irakasleen eta zuzendaritza-taldearen aurrean bitartekotza egitea, sortzen diren gaietan.

2.- Ikasle-taldearen irakasleei lotuta

- Bere taldeko irakasle-taldea koordinatzea, bai programazioan, bai ebaluazioan, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuko banakako egoeren eta egoera orokorren azterketan. Tutoreek hiru bilera egin beharko dituzte gutxienez ikasturteko, bere taldeko irakasleekin, ebaluazio-saioetatik kanpora. Tutoreak bilera horien berri eman beharko dio ikasketaburuari, eta berak egingo du bilera horietarako deia.
- Tutoretza-plana jakinaraztea, adostea eta garatzea, planetik sortzen diren jardueretan esku hartzea eta elkarlanean aritzera bultzatuz.
- Ikasleen ezaugarriei buruzko informazioa ematea maila horretako irakasleei, eta programazioan, ebaluazioan eta hezkuntza-harremanean duten inplikazioa jakinaraztea.
- Bere taldeko ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta ebaluazio-prozesua egiteko saioak antolatzea eta saioen buru izatea.
- Curriculumaren egokitzapenetan laguntzea: curriculum-egokitzapenak, hezkuntzan berriaz esku hartzeko proiektuak, curriculum-aniztasuneko programak, premia bereziak dituzten ikasleentzako errefortzu-jarduerak eta haien hezkuntzan esku hartzeko jarduerak.
- Ikasleen ikasketa-zailtasun orokorrenei erantzutea, eta, ahal izanez gero, aurre hartzea, programazioari beharrezko egokitzapenak eginez, eta banakako hezkuntza-premiei ere erantzutea, horrela, beharra ikusiz gero, curriculum-egokitzapena egiteko.
- Ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta, irakasle-taldearen aholkularitzarekin, eskola-orientazioko banakako txostena egitea, familiak jakinaren gainean jartzeko eta ikasleak orientatzeko. (Txosten hori behin egingo da

gutxienez Lehen Hezkuntza amaitzean, bai eta aparteko egoerak gertatzean ere; besteak beste, zikloa edo maila ez gainditzean. Txosten horiek guztiak isilpekoak izango dira. Lehen Hezkuntza bukatzean egingo den banakako txostenak alderdi hauek erakutsiko ditu, gutxienez: ikasketak eskuratzeko maila —batez ere, ikasle bakoitzaren hezkuntza-aurrerapenean eragin handiena dutenak eskuratzeko maila— eta banakako arreta bermatzeko garrantzitsutzat hartzen diren gainerako alderdiak ere). 23. artikulua, Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumaren Dekretua.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, tutoreak eskola-orientazioko banakako txostena egingo du, irakasle-taldearen aholkularitzarekin, aukeren hautaketan familiei informazioa emateko eta ikasleei orientatzeko. (Txosten hori behin egingo da gutxienez etapa amaitzean, bai eta aparteko egoerak gertatzean ere; besteak beste, maila ez gainditzean. Txosten horiek guztiak isilpekoak izango dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lanbide Prestakuntzako Hastapeneko Programa amaitzean, txostenak orientazioa eman beharko dio ikasleari, ikasketa- eta lanbide-arloan izango duen etorkizunari buruz). 23. artikulua, Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumaren Dekretua.

- Irakasgaien estatistikak eta ikasketaburuak eskatzen dituen datu guztiak betetzea, bai eta tutoretza-lanetik sortutako ikasleen ikasketa-agiriak ere.

3.- Familiei eta/edo legezko tutoreei eta beste gizarte-eragile batzuei lotuak:

- Ikastetxearen eta hezkuntza-etaparen berri ematea gurasoei eta/edo legezko tutoreei.
- Banakako hezkuntza-prozesuaren jakinaren ginean jartzea, eta lankidetzat eskatzea.
- Familiak eman dezakeen informazioa jasotzea, ikaslea eta haren familia-testuingurua hobeto ezagutzeko.
- Gurasoei aholkularitza ematea; besteak beste, alderdi hauetan: ikasketa- eta portaera-arazoaren konponketan, ikasketen antolaketan eta plangintzan, eta ikasketa- eta lanbide-arloko erabakiak hartzeko garaian.

- Seme-alabak irakaskuntza-jardueretara azaltzen diren eta jardueretan parte hartzen duten jakinaraztea ikasleen gurasoei eta legezko tutoreei, eta haren hezkuntza-prozesuaren berri ematea.
- Eskola-jarduerekin lotutako gai guztiei buruzko informazioa ematea ikasleei, haren gurasoei eta/edo legezko tutoreei, haiek irakasleengana edo ikastetxeko aginte-organoetara jotzeko duten eskubidearen kalterik gabe. Tutorearen asteroko bisitaren ordutegia jakinarazi beharko die ikastetxeak familiei.
- Familien parte hartzea bultzatzea ikastetxean.

6. TUTORETZA-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ikasturtean, maila bakoitzeko tutore-taldeak tutoretza-planaren garapenaren jarraipena egingo du.

Ikasturtea amaitzean, tutoretza-planaren ebaluazioa egingo dute, eta baita planaren garapenari buruzko amaierako memoria ere. Memorian idatziko dute tutoreek, ikasleek eta lankide diren beste eragileek egindako behaketen laburpena, ondo atera diren alderdiak, sortutako zailtasunak eta aldatu beharko diren alderdiak.

Ebaluaziotik ateratzen dituzten ondorioak kontuan hartuko dituzte, hurrengo ikasturtean egin beharreko aldaketak eta egokitzapenak egiteko.

Tutoretza-planaren ebaluazioa egiteko, irizpide hauek erabil daitezke, besteak beste:

- Zer gaitasun-maila eskuratu duten, ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera.
- Edukien garrantzia
- Jardueren egokitasuna, gaitasunak eskuratzeko
- Hiru jarduera-eremuetan aurrera eramandako ekintzen egokitasuna
- Ikasle-taldearen eta familien parte hartzea

2. ZATIA:

LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ZIKLOAN TUTORETZA-PLANAK DUEN GARAPENA

1.-ORIENTAZIO ARLOAREN GAITASUNAK, LEHEN HEZKUNTZAN

Oinarrizko gaitasuntzat hartzen da Oinarrizko Hezkuntzan ikasten ari den edozein ikasleek eskuratu behar dituen ezagutzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen konbinazioa. Konbinazio hori guztia testuingurura egokituta dago, eta ezinbestekoa da ikasleek eskuratzea, garapen pertsonala izateko, hiritar aktibo bihurtzeko eta gizarteratzeko.

Sarreran adierazi dugunez, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak oinarrizko gaitasun hauek ditu barruan:

- a) Gaitasuna kultura zientifikoan, teknologikoan eta osasun-kulturan
- b) Ikasten ikasteko gaitasuna
- c) Matematika-gaitasuna
- d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- e) Gaitasun digitala eta informazioaren trataerarakoa
- f) Gizarte- eta hiritar-gaitasuna
- g) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Gaitasun horiek zenbait irakasgai eta ezagutzaren hainbat alorren bidez eraikitzen dira, bai eta eskolako testuinguruetan eta eskolaz kanpokoetan gertatzen diren mota guztietako esperientzien bitartez ere.

Orientabidea eta Tutoretzaren helburutzat, Lehen Hezkuntzako etapan garatu beharreko gaitasun hauek identifikatu ditugu:

1- Gelako bizitzan parte hartzea, jardueretan eta gelako funtzionamenduari buruzko erabakietan esku hartzea, bizikidetzara-errespetatzea, arduraz, errespetuz eta jarrera kritikoz jokatzeko.

2- Inguruko pertsonekin harremanetan jartzea, eta pertsona horiei laguntzea, entzutea eta haiekin komunikatzea, besteak aintzat har ditzan, eta besteekin jolasteko, ondo pasatzeko eta lan egiteko gai izan dadin.

3- Bidegabekeria- edo indarkeria-egoerez jabetzea, aniztasuna onartzea eta errespetatzea, justizia-, berdintasun-, bake- eta elkartasun-balioekin bat etor dadin bere portaera, kultura arteko gizartean.

4- Jarrera irekiarekin hausnartzea eskola-jarduerak egiteko duen moduari eta egiten duen ahaleginari buruz, ikasleak bere eskola-errendimendua ebalua dezan eta behar duen laguntza onar dezan, eta, horrela, ondo egindako lana aintzat har dezan.

5- Bere buruaren ezagutza aztertzea, autoestimu egokia garatzeko eta segurtasunez aurre egiteko egoera berriei.

6- Irizpideak erabiliz aztertzea eguneroko bizitzako esperientziak eta gatazka-egoerak, eta aukerak baloratzea, erabakiak autonomiaz eta errespetuz hartu ahal izateko.

Beheko taulan, Lehen Hezkuntzako sei gaitasun horiek oinarrizko gaitasunekin dituzten loturak agertzen dira.

Alorreko gaitasunen eta oinarrizko gaitasunen arteko lotura

ALORREKO GAITASUNAK	OINARRIZKO GAITASUNAK							
	a	b	c	d	e	f	g	h
1- Gelako bizitzan parte hartzea...						x		
2- Inguruko pertsonekin harremanetan jartzea...						x		
3- Bidegabekeria- edo indarkeria-egoerez jabetzea...						x		
4- Jarrera irekiarekin hausnartzea eskola-jarduerak egiteko duen moduari eta egiten duen ahaleginari buruz...		x						x
5- Bere buruaren ezagutza aztertzea...								x
6- Eguneroko bizitzako esperientziak eta gatazka-egoerak irizpidez aztertzea...						x		x

2.- ORIENTAZIO ARLOAREN EDUKI-MULTZOAK

Pertsona bati banako pertsona gisa eta, aldi berean, gizarteko kide gisa hazi ahal izateko baliabideak edo bitartekoak ematea da heztea. Ikastetxeak ikasleen gaitasunak garatzen lagunduko du, banakako desberdintasunak abiapuntu hartuta. Hori dela-eta, tutoretza ikasketa-prozesu bat da, eta garatzen ditugun orientazio-gaiak ikastetxeko eremuetan edo testuinguruetan agertu behar dute, ikasleek ikasketa esanguratsua izan dezaten. Gai horiek guztiak multzo hauetan bil daitezke:

1- **Garapen pertsonala**

Hazkuntza pertsonalarekin, erabakiak hartzearekin eta bizitzan zehar proiektu pertsonala egitearekin lotutako edukiak sartzen dira multzo honetan.

2- **Besteekiko harremanak: komunikazioa, talde-lana eta gatazken konponketa**

Giza taldeen funtzionamenduarekin, elkarlanarekin, lankidetzarekin eta gatazken azterketa eta konponketaarekin lotutako kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak daude jasota multzo honetan.

3- **Ikasketa-prozesuak**

Oro har, eskola-errendimendua optimizatzen duten gaitasunekin, ikasketa-tekniken aplikazioarekin eta metakognizio-estrategiekin lotutako edukiak dira.

4- **Lanbide-orientazioa**

Ibilbide pertsonalarekin eta lanbide-ibilbidearekin lotutako erabakiak hartzearekin du zerikusia eduki honek, norbere buruaren eta lan-munduari ezagutza abiapuntu hartuta.

3.- **MULTZO BAKOITZEAN SAR DAITEZKEEN GAIK ETA MATERIALEN ERREFERENTZIA**

Tutoretza-planaren barruan, Orientazio Arloak emandako eduki-multzo bakoitzeko gaiak ageri dira taula honetan, banan-banan. Gaiak eta haien garapena aldatu egingo dira etapan zehar.

1. eduki-multzoa: **Garapen pertsonala**

GAIK

1-Autoestimua

Autokontzeptua

Norbere itxaropenak eta besterenak (Pygmalion efektua, Galatea efektua)

Erlaxazioa, norbere ezagutza eta autokontrol gisa

2-Sentimenduak eta emozioak

Norbere buruarekin eta gainerakoekin lotutako sentimenduak eta emozioak ezagutzea eta identifikatzea

Sentimenduak eta emozioak adieraztea

Autorregulazioa

3-Norbere nortasuna

Genero-nortasuna

Kultura-nortasuna...

4-Ahalmenak sustatzea

Hainbat motatako ahalmenak eta adimenak

Motibazioa

Ahalegina eta errendimendua

MATERIALAK

AUTOESTIMUA

Alcántara, José A.: **Cómo mejorar la autoestima.** Aula Práctica. CEAC

Clemes, Harris- Bean, Reynold (1998) **Cómo desarrollar la autoestima en los niños.** Madril: DEBATE. Escuela de padres,

Haeussler P. Isabel eta Neva Milicic: **Confiar en uno mismo. Programa de autoestima.** CEPE

Hainbat egile (1998). **Desarrollo de valores y autoestima (DEVA).** Bilbo: IPE S.L. Caritas

Hainbat egile. **Programa de buenos tratos.** Emakumearen Errioxako Erakundea. Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen Kontseilaritza. Errioxako Gobernu

Machargo, J. (1991). **El profesor y el autoconcepto de los alumnos.** Madril: Escuela Española

Machargo, J. (1996). **Programa para el desarrollo de la autoestima.** Madril: Escuela Española

McKay, M. eta Fanning, P. : **Autoestima, evaluación y mejora** : 14. kapitulua. **Fomento de la autoestima en los niños.** .Biblioteca de Psicología, Psiquiatría y Salud. Ed.: Martinez Roca

Vallés Arándiga, Antonio- Vallés Tortosa, Consol. (1995). **Autoestima** (Cuaderno para 1er ciclo de E.Primaria). Alcoy: Marfil

Villa Sanchez, Aurelio- Auzmendi Escribano, Elena (1999). **Desarrollo y evaluación del autoconcepto en la edad infantil.** Bilbo: Mensajero,

ERLAXAZIOA

Barón, B. : **Mi papá es de plastilina.** Bartzelona: RBA

Cavallier, François J. Paul (2005). **Visualización- Imágenes para la acción.**

Nadeau, Micheline (1998). **Juegos de relajación para niños de 5 a 12 años** Malaga: Sirio

Olazábal Amaral, Leonardo (1989). **Yoga para niños en edad escolar-** Eskolaturiko haurrentzako yoga. Bilbo: DARJEELING

HEZKUNTZA EMOZIONALA ETA GARAPEN PERTSONALA

Alvarez, M. **Diseño y evaluación de programas de educación emocional.** Bartzelona: CISS-PRAXIS- Escuela Española.

Bisquerra, Rafael: **La educación emocional y el bienestar.** Bartzelona: CISS-PRAXIS- Escuela Española.

Bisquerra, Rafael eta beste hainbat egile: **La educación emocional en educación infantil.** Argit.: CISS-PRAXIS. Escuela Española

Camuñas, N., Pérez Nieto, M.A., Ferrándiz, P, Miguel-Tobal, J.J., Cano-Vindel, A. eta Iruarrizaga, I. (1999). **“Ansiedad, depresión e ira: relaciones entre el estilo atribucional y las emociones negativas.”** *Ansiedad y Estrés*, 5 (2-3), 175-189

Fernandez, P-Ramos, Natalia: **Corazones inteligentes.** Argit.: Kairos

Grup Xibeca (1995) **Los dilemas morales. Un método para la educación en valores.** Valentzia: NAU LLIBRES

Ibarrola, B. (2003.) **Cuentos para sentir. Educar las emociones** (2 liburuki) Madril: SM

López Cassá, E. (2006) **Educación emocional. Programa para 3-6 años.** Bartzelona: Praxis

Maurice, J.Elias- Steven, E. Tobias-Brian, S. Friedlander (1999). **Educar con Inteligencia Emocional. Cómo conseguir que nuestros hijos sean sociables, felices y responsables.** Bartzelona: Plaza Janés

Paula Pérez, I. (2000) **Habilidades sociales, educar para la autorregulación: conceptualización, intervención y evaluación.** Bartzelona: Horsori

Paula Pérez, I. eta Garanto, J. (2002) **Comprender las habilidades sociales en la educación.** Bartzelona: Fundec

Piaget, J. (1981). **Intelligence and Affectivity.** Kalifornia: Anual Reviews

Renom Plana, A. (2003). **Educación emocional. Programa para educación primaria (6-12 años).** Bartzelona: Praxis

Segura, Manuel- Arcas, Margarita (2004) **Educar las emociones y los sentimientos. Introducción al complejo mundo de los sentimientos.** Argit.: Narcea

BATERAKO HEZKUNTZA - GENERO-HEZKUNTZA

Fabra, M^a Luisa (1996) **Ni resignadas ni sumisas. Técnicas de grupo para la socialización asertiva de niñas y chicas.** Bilduma: Cuadernos para la Coeducación. Hezkuntza Zientzien Institutua. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa. Bartzelona

Urtxintxa Eskola: **Ipuinak ez sexista izateko gida** (2 urtetik 12 urtera)

DOLUA

Heriotzarekin lotutako hezkuntza

Bawin, M.A.;Hellings, C. (2000). **El abuelo de Tom ha muerto.** Bartzelona: Combel

Company, M.; Horacio, E. (1994). Santi y Nona: **¡ Adios abuela!**. Bartzelona: Timun Mas

De Paola, T. (1994). **Abuela de arriba, abuela de abajo.** Madril: SM

Gliori, D. (2000). **Siempre te querré.** Bartzelona: Timun Mas

Gray, N.; Cabban, V. (1999). **Osito y su abuelo.** Bartzelona: Timun Mas

Klüber-Ross,E. (1991). **Carta para un niño con cáncer.** Bartzelona: Luciérnaga

Mars, S. (1993).**Se ha muerto el abuelo.** Bartzelona: La galera. Bilduma: Así es la vida

Martinez i Vendrell, M; Solé Vendrell,C. (1984). **Yo las quería** Bartzelona: Destino

Mundy, M. (2002). **Cuando estoy triste ante la pérdida de un ser querido.** Madril: San Pablo

Shriver,M. (2000). **Mamá, ¿qué es el cielo?.** Bartzelona: Salamandra

Vergés de Echenique, P. (2001). **Berta reúne fuerzas para afrontar el cáncer.** Bartzelona: Sirpus

Verrept, P. (2000). **Te echo de menos.** Bartzelona: Juventud

2. eduki-multzoa: Besteekiko harremanak: komunikazioa, talde-lana eta gatazka-konponketa

GAIAK
<p>1- Taldea</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Talde-azterketak (liderra eta lidergoa, taldeko zereginak, taldea eta ekipamendua, partaidetza-sentimendua)➤ Harrera (elkar ezagutzeko, lasaitzeko eta konfiantza hartzeko jolasak)➤ Talde-integrazioa (komunikazio- eta adierazpen-jolasak)
<p>2- Besteekiko harremanak</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Elkarbizitza-arauak eta diziplina➤ Eskola-antolaketa eta -funtzionamendua:<ul style="list-style-type: none">Arduraduna aukeratzeaIkasgelako arauak ezartzea eta ikastetxekoak ezagutzeaTaldeak eratzeaSoziograma➤ Talde-gela indartzea<ul style="list-style-type: none">Lankidetzeta-jolasakElkarrizketaSolasa
<p>3- Gizarte-trebetasunak</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Komunikazio-trebetasunak (adierazpenezkoak, oldarkorrak, pasiboak)➤ Gizarte-jokabidea➤ Enpatia
<p>4- Gatazka</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Gatazkari aurre egiteko estiloak: lehia, lankidetzeta, egokitzea/men egitea, ihes egitea, konprometitzea (negoziazioa-bat etortzea)➤ Oldarkortasuna eta indarkeria➤ Konponketa-estrategiak:<ul style="list-style-type: none">BitartekaritzaBerdinen arteko laguntzaAzterketa eta negoziazioaPrebentzioa

MATERIALAK

TALDE-TEKNIKAK

Cascón Soriano, Paco-Martín Beristain, Carlos (2000) **La alternativa del juego (1)**” (juegos y dinámicas de educación para la paz). Madril: Los libros de la Catarata

Garaigordobil Landazabal, Maite (1993) **Juego cooperativo y socialización en el aula**. Un programa de juego amistoso, de ayuda y cooperación para el desarrollo socioafectivo en niños de 6 a 8 años. **(Kooperazio jolasa eta sozializazioa ikasgela)**. Jolas-programa adiskidetsua, laguntzaile eta kooperatiboa 6 eta 8 urteen arteko umeentzako, bere garapen afektiboa sendotzeko). Madril: Seco Olea

ELKARBIZITZA

Carrascosa Cebolla, M^a Jesús J.- Martínez Mut, Bernardo (1998). **Cómo prevenir la indisciplina**. Madril: Escuela Española

Corneloup, Alain (1991). **Como mantener la disciplina**. Bartzelona: CEAC Aula práctica

Cherry,Clare (1985) **Cómo mantener tranquilos a los niños**. Bartzelona: CEAC

Gomez, M^a Teresa-Mir, Victoria-Serrats, M^a Gracia (1990). **Propuestas de intervención en el aula. Técnicas para lograr un clima favorable en la clase**. Madril: Narcea ediciones

Martinez, M.C. (2006). **Cómo abordar los pequeños y grandes conflictos cotidianos**. Bartzelona: Graó

Ortega, Rosario eta laguntzaileak (1998). **La convivencia escolar: qué es y cómo abordarla**. Sevilla, Andaluziako Junta. Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritza

PENTAZITATEAREN materialak

Salas, B. (2003) **Diccionario de la Pentacidad. Un modelo coeducativo capacitador para el desarrollo global de la persona**. Bartzelona:Octaedro SL.

Salas, B.-Serrano, I. (2003). **Convivencia, aprendizaje y tutoría**. (Iniciación a la Pentacidad-1er ciclo de Primaria). Bartzelona: Octaedro

Hainbat egile (2005). **Bizitzarako gaitasunak eta balioak. Bizikidetzeta eta tutoretza**. (Lehen Hezkuntza 1-2-3-4-5-6). Donosita-San Sebastián: Eusko Jaurlaritza

Segura, Manuel (2005). **Enseñar a convivir no es tan difícil. Para quienes no saben qué hacer con sus hijos o con sus alumnos.** Argit.: Desclée de Brouwer

Segura, Manuel-Arcas, Margarita (2006). **Relacionarnos bien.** Programa de competencia social para niños y niñas de 4 a 12 años. Madril: Narcea

Ipuinak: **Estela katagorria, Dina Igela eta Viky Dortoka eta hark arazoak gainditzeko duen modua**

GIZARTE-TREBETASUNAK

Alvarez, A et al: (1990). **Desarrollo de las habilidades sociales en niños de 3 a 6 años.** Madril: Visor

Hainbat egile (1995). **DISCOVER. Aprendiendo a vivir** (Desarrollo de habilidades sociales y prevención contra la drogodependencia). (Hasierako maila: 1, 2, 3 eta 4) (Euskara eta gaztelania) Bilbao: IPE SL

Martinez López, M^a Mercedes (1998) **Las habilidades sociales en la escuela.** 1 y 2 Programa de Enseñanza. Educación Primaria. Valentzia: Promolibro, Bild.: Atención a la Diversidad,

Monjas, Ines (1993). **Programa de entrenamiento en habilidades de interacción social**” PEHIS. Salamanca: Trilce

Paula Perez, I. (1996). **Las habilidades sociales en el marco de la orientación psicopedagógica.** En Manual de orientación y tutoría. Bartzelona: Praxis

Vallés Arándiga, Antonio- Vallés Tortosa, Consol. (1996). **Las habilidades sociales en la escuela. Una propuesta curricular.** Madril: EOS

Vallés Arandiga, Antonio (1998). **Autocontrol. Entrenamiento en actitudes, valores y normas (1º, 2º,3º,4º,5º,6º).** Alcoy: Marfil

GATAZKA-KONPONKETA

Girard, Kathryn- Koch, Susan J. 1997). **Resolución de conflictos en las escuelas** (Manual para educadores). Bartzelona: CEAC

Sastre, Genoveva-Moreno, Montserrat: **Resolución de conflictos y aprendizaje** (desde un punto de vista de género). Argit.: Gedisa.

3. eduki-multzoa: Ikaskuntza-prozesuak

GAIAK
1- Ikasketen antolaketa eta plangintza <ul style="list-style-type: none">➤ Lan-ohiturak:<ul style="list-style-type: none">AgendaIngurumen-baldintzak➤ Alorretan lan egiteko arauak
2- Motibazioa, ahalegina eta errendimendua
3- Alor desberdinetan pentsatzen irakasteko estrategiak: <ul style="list-style-type: none">➤ Problema ebazteko urratsak➤ Sormena➤ Metakognizioa➤ Arrazoiketa➤ Kontzentrazioa➤ Memorizazioa

MATERIALAK

PENTSATZEN IKASTEAK

Baqués, M. (1996). **Proyecto de activación de la inteligencia (1-2)**.
Madrid: SM

Blanch, X.-Espot, L. (2005). **Oinarrizko Gaitasunak lantzeko koadernoak. Ikusmen jokoak (1,2,3), Logika jokoak (1,2,3), Orientazio jokoak (1,2)**.
Donostia: Elkar

Elosúa, M^a Rosa-García, Emilio (1993) **Estrategias para enseñar y aprender a pensar.** , Bild.: Apuntes IEPS 57. zk. Madrid: Narcea SA

García, C.-Aparicio, M.A. (1988). **Atención 2 (de 7 a 9 años y educación especial)**. Valentzia: Prom

Hainbat egile (2005). **Jolas eta lan programa (Lehen Hezkuntza, 1. zikloa)** Donostia: Erein

Jonson, D.W. eta beste batzuk (1999). **El aprendizaje cooperativo en el aula**. Bartzelona: Paidós educador

Tierno, B.-Gimenez, M. (2004). **La educación y la enseñanza primaria de 6 a 8 años. Juega conmigo** (la imaginación, aprender a aprender...). Madrid: Aguilar-Santillana

Vallés, A. (1994). **Taller de atención y memoria (1er ciclo de educación primaria)**. Valentzia: Promolibro

Wöbking, W. (2000). **Niños más inteligentes**. Bartzelona: RBA

Yuste Hernanz, C. (1992). **Cuadernos de recuperación y refuerzo del razonamiento básico** METODO EOS. Madrid: EOS

4. eduki-multzoa: Lanbide-orientazioa

GAIAK

1-Erabakiak hartzea

2-Lanarekin lotutako balioak

3-Helburuak eta horiek lortzeko bideak

4-Bakoitzak etorkizunean izango duen proiektzioa

MATERIALAK

Eusko Jaurlaritz (1990). **GUIA 0 GIDALIBURUA: Eskolaren esparruan erabakiak hartzeko gida. Guía para la toma de decisiones en el marco escolar.**

Ortner, G. (2003). **Cuentos que ayudan a los niños**. Malaga: Sirio SA

LEHEN HEZKUNTZAKO TUTORETZARAKO BESTE MATERIAL OSAGARRI BATZUK:

ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA

Angulo, Araceli (2003). **La tutoría en la Educación Primaria**. Bartzelona: Praxis

Arnaiz, Pere- Isus, Sofia (1995). **La tutoría, organización y tareas**. Bartzelona: Graó

MEC. (1992). Cajas Rojas del MEC de Primaria: **Orientazioa eta tutoretza**. Madril: MEC

Eusko Jaurlaritzak. (2005). **Tutoretza Lehen hezkuntzan: laguntzeko eskuliburua** (CD-ROM). Donostia. (Eusko Jaurlaritzaren web gunean ere eskuragarri dago –*helbidea beherago ezarri da-)

Fernandez Torres, Paloma (1991). **La función tutorial**. Madril: Castalia, MEC

Galve Manzano, Jose Luis- García Perez, E.Manuel (1992). **La acción tutorial en la enseñanza no universitaria (de 3 a 18 años)**. Madril: CEPE

Sanchez Sanchez, Serafín (1985). **La tutoría en los centros docentes. Manual del profesor tutor**. Madril: Escuela Española SA

Tena Rosa, M.-Ceballos García, M.J. – Sevilla Arispón, A. (1998). **La acción tutorial. De la práctica a la teoría**. Madril: Bruño

FAMILIAK

Chedekel, David S.-O’Connell, Karen G.: **Familias de hoy. Modelos no tradicionales**. Madril: argit.: Espainiako Mc Graw-Hill/Interamericana, 2002

Fiorenza, A. (2003). **Niños y adolescentes difíciles. Soluciones a problemas de conducta y de crecimiento mediante la terapia en tiempo libre**. Bartzelona: RBA (hainbat gai agertzen ditu –besteak beste, anorexia, hautazko mututasuna, enuresia, obsesioak–, bai eta horiek nola tratatu ere)

WEB ORRIAK:

I- <http://www.elkarrekin.org/>

Hiru lurraldeetako irakasle-mintegietan egindako materialak aurki daitezke atari honetan. Material horietako batzuk liburutegian zintzilikatu dira, “eskola inklusibo baterantz” lehenitasuneko ildoaren barnean; beste batzuek, berriz, nor bere web orria zintzilikatu dute. Honako hauek, esaterako, erabilgarriak izan daitezke:

1-Elkarbizitza. Gatazka-konponketa. Irakasle aholkularien mintegia

2-Ikasleen artean tratatu txarrak eta beldurraraztea. Gasteizko Berritzegunea

3-Bizitza eta bizikidetzak onuragarria izan. Vivir y convivir saludablemente

4-Hezkuntza emozionala. Hurrekin hezkuntza emozionalaren programak aplikatzeko entrenamendu-tailerra.

5.-Tutoretzarako materialak: Donostiako Berritzeguneko Lehen Hezkuntzako tutoretza-mintegian egindako materialak (liburutegian dago zintzilikatuta)

II- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren orria

<http://www.hezkuntza.ejgv.net/>

“Argitalpenak” erlaitzean honako hauek agertzen dira:

-Interneten eskura daitezkeen argitalpenak. Adib.: “Jolas gaitzen”

-Curriculum-materialen bildumak. Adib.: “Afecto y coeducación en ed. Primaria”

-Beste argitalpen batzuk: Adib.: Araceli Angulo: “Tutoretza Lehen Hezkuntzan. Laguntzeko eskuliburua”. Honako hau da material horren helbidea:
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dia6/es_2027/adjuntos/tutoretza/HASIERA.htm

“El maltrato entre iguales. Educación Primaria”

“Orientaciones para la elaboración del plan de acogida para el alumnado inmigrante”

III- Tutoretza-baliabideak dituen MECen orria

<http://www.cnice.mec.es/>

(bilatu, “irakasleak” > “ikastetxeak” > “hezkuntza-baliabideak”)

IV- Tutoretza egiteko materialei buruzko lotura ugari dituzten orrialdeak:

<http://personal.telefonica.terra.es/web/medellinbadajoz/tutoresprofesores.htm>

4- GAITASUNAK ETA EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, LEHEN HEZKUNTZAN

Aurrez aipatutako gaitasunen lorpena baloratu ahal izateko, horietako bakoitzarekin lotutako zenbait ebaluazio-irizpide identifikatu dira.

Argigarria izan dadin, honako taula hau egin dugu:

GAITASUNA	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<p>1.- Nork bere buruaren ezagutza aztertzea, autoestimu egokia garatzeko eta egoera berriei segurtasunez aurre egiteko.</p>	<p>Ezaugarri pertsonalak errealismoz azaltzen ditu Pertsona bezala hazteko gainerakoen laguntzak duen garrantzia aitortzen du Helburu dituen xedeak lortzeko ilusioa eta ahalegina egiteko nahia agertzeko ditu Egoera berriei aurre egiten die Bere iritzia autonomiaz adierazten ditu, eta, aldi berean, malgutasunez jokatzeko du Dituen kezkak adierazten ditu Bere sentimenduak eta emozioak agertzen ditu Bere ikaskideekin berdintasunezko harremanak izaten ditu, eta ez du ez besteen gaineratik ez besteen mendean jokatzeko</p>
<p>2.- Eguneroko bizitzan gertatzen diren esperientziak eta gatazka-egoerak irizpideei jarraiki aztertzea, eta, horrez gain, erabakiak autonomiaz eta errespetuz hartzeko dauden aukerak baloratzea.</p>	<p>Eguneroko bizitzako gatazka-egoerak identifikatzen ditu Ikasgelan sortzen diren gatazka-egoeretan, jarrera pertsonala hartzen du Unean uneko gizarte-gertakariari eta -arazoei dagokienez, bere iritzia ematen du Eguneroko bizitzan, pertsonen artean gertatzen diren arazoak pertsonalki eta era autonomoan konpontzen ditu Zerbaitekin ados ez dagoenean, ikaskideekin horri buruz hitz egin nahi izaten du</p>
<p>3.- Bere portaera arduratsua eta errespetuzkoa izan dadin, ikasgelako bizitzan parte hartzea; hau da, horren funtzionamendurako ekintzetan eta erabakietan inplikatzeko eta elkarbizitza-arauak errespetatzea.</p>	<p>Bere iritzia ematen du, eta talde-gelan proposatutako jardueretan inplikatu egiten da Ikastetxean sustatzen diren jardueren-deialdiei erantzuten die Zeregin bateratuen ardura hartzen du Hartutako konpromisoetatik eratorritako lan guztiak amaiera arte betetzen ditu Jarduerak, jolasak... proposatzen ditu Elkarbizitza-arauak betetzen ditu</p>

<p>4. Jarrera irekia mantenduz, eskola-jarduerak gauzatzeko moduari eta egindako ahaleginari buruz hausnartzea; horrela, bere eskola-errendimendua ebaluatu eta beharrezko duen laguntza onartuz, eta, horrez gain, ondo egindako lana baloratuz du.</p>	<p>Zereginak betetzen hastean bere buruarekiko konfiantza agertzen du Zailtasunak eta frustrazioa onartzen ditu, baina ez du zeregina bertan behera uzten Amaitutako eta ondo egindako lanarekin gozatu egiten du Eskola-betebeharrei erantzuteko duen modua ikuspegi errealistarekin baloratzen du Agenda era sistematikoan erabiltzen du Bere denbora dituen betebeharren arabera antolatzen du Eskola-materialak zaindu, antolatu eta ordenatuta gordetzen ditu Eskolan dituen zereginak arduraz eta era ordenatuan betetzen ditu Zereginak betetzen hasi aurretik prestatu egiten ditu Zalantzak dituenean galdetu egiten du Informazioa bilatzen eta hautatzen du</p>
<p>5.- Inguruko jendearekin harremanak izatea, eta lankidetzarako, entzuteko eta komunikatzeko jarrera agertzea; horrela, baloratzeaz gain, gai izango da beste pertsonekin modu sortzailean jolasteko, gozatzeko eta lan egiteko.</p>	<p>Talde-lanak egitean, beste ikaskideak entzuten ditu Proposamen desberdinak daudenean bere iritzia arrazoitzen du Bere ikaskideek egindako ekarpenak baloratzen ditu Egiten dituen ekarpenen bidez, zeregin bateratuetan aurrera egiten laguntzen du Besteekin lan egiteari dagokionez, poztasuna adierazten du Besteekin egiten dituen jolasetan parte hartu eta gozatu egiten du Adierazpenez komunikatzen da</p>
<p>6.- Bidegabekeria- edo indarkeria-egoerez jabetzea eta aniztasuna onartzea eta errespetatzea; horrela, kultura arteko gizartean, bere portaera bat etorriko da justizia-, berdintasun-, bake- eta elkartasun-balioekin.</p>	<p>Bidegabekeria-egoerei nahiz haurren eskubideak errespetatzen ez diren egoerei dagokienez, bere jarrera adierazten du. Elkartasun-keinuak egiten ditu bere inguru hurbilean dauden premiei dagokienez Gizarte-premiak direla-eta, etorkizunean laguntza eta babesa emateko nahia adierazten du Hainbat kulturatan dagoen aberastasuna baloratzen du eta horrekiko interesa agertzen du Gainerakoei behar bezala hitz egitea</p>